



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 1a

28. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, 2015eko diru-bilketaren datuei buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen erabiltzaileei aplikatzekoak zaizkien tarifa berriei buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Sozialen Foru Funtsean sartuko dituen etxebizitzetarako buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Berriozarren dagoen trenbide-pasaguneari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Espezializazio Adimendunerako Estrategiaren (RIS3) garapenari buruzkoa. Unai Hualde Iglesias jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, eremu ez-euskaldunean 2016-2017 ikasturterako D ereduan izandako matrikulazioa dela-eta Hezkuntza Departamentuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Espezializazio Adimendunerako Estrategia garatzeko arrazoiei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, lan arriskuen prebentzioa dela-eta Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (7. or.).
- Galdera, datorren ikasturteari begira LOMCEren garapena dela-eta Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren plantilla organikoan euskara baldintza deneko lanpostuen portzentajea dela-eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak egiten duen irakurketari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuko lan-eskaintza publikoari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (9. or.).

- Galdera, zenbait artistak eginiko proposamenari buruzkoa, Baztanen herri galdeketa bat egitekoa Aroztegi-ko UPSaren onespenez sortu duen gatazka konpontze aldera. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernua egiten ari den jarduketei buruzkoa, lortze aldera Nafarroara heldu ahal izatea aurreikusita dauden asilo-eskatzaileak. María Fátima Andreo Vázquez andreak egin du (11. or.).
- Galdera, jakitekoa zenbat aurreinskripzio-eskabide egin diren Ingelesez Ikasteko Programa duten ikastetxeetan edo curriculum-proiektuan ingelesa ikasteari lehentasuna ematen dioten ikastetxeetan. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, irakasleen prestakuntzaren finantzaketari buruzkoa. Galdera erretiratzea (13. or.).
- Galdera, Nafarroako iparraldeko zenbait ikastetxetan 12 urtetik 16 urtera bitarteko ikasleei egindako “Nafarroa Mendialdeko 2015eko Inkesta Soziolinguistiko”ari buruzkoa. Galdera erretiratzea (13. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2015eko diru-bilketaren datuei buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, 2015eko diru-bilketaren datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea

jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aste honetan ezagutu ditugun informazioen arabera, UPN, PPN eta PSNren 2014ko erreforma fiskalari esker, aurreko urtean baino 191 milioi euro gehiago bildu dira 2015ean. Beste iturri batzuen arabera, ordea, diru-bilketa hori 241 milioi eurokoa izanen zen; hau da, 50 milioi euro galduko edo bildu gabe geldituko ziren.

Gobernuak nola azaltzen ditu datu hain kontrajarri horiek? Zenbateko horietako zein hurbiltzen zaio gehiago errealitateari?

Iruñean, 2016ko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, Nafarroako Ubidearen erabiltzaileei aplikatzekoak zaizkien tarifa berriei buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen erabiltzaileei aplikatzekoak zaizkien tarifa berriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Egunotan iragarri dira Nafarroako Ubidearen erabiltzaileei 2016an, 2017an eta 2018an aplikatu beharreko tarifa berriak, ureztatzaileek eta erkidegoek batetik eta CANASA-Nafarroako Ubidea estatu-sozietatearen Administrazio Kontseiluak bestetik akordioa lortu ondoren.

Azken akordioak ezartzen du 2015erako ehuneko 15 igotzea (2014ko prezioaren aldean), eta 2016, 2017 eta 2018rako ehuneko 2 igotzea (hori ere, 2014ko tarifaren aldean). Igoera hori kontrajarrri egiten zaio UPNren aurreko gobernuak proposatutako igoerari: ehuneko 60. Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Nola azaltzen da ureztatzaileek urarengatik ordaindu beharreko diru-kantitatean hainbesteko aldea egotea?

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Sozialen Foru Funtsean sartuko dituen etxebizitzetarako buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Sozialen Foru Funtsean sartuko dituen etxebizitzetarako buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Nafarroako Gobernurako 2015-2019 programa-akordioak –arrunki “Lauko Akordioa” izenez ezagutzen denak– aurreikusten du Etxebizitza Sozialerako Nafarroako Funtsa handitzea legegintzaldian zehar: 400 etxebizitza, hain zuzen ere (150 lehenengo urtean, 100 bigarrenean, eta 75na hirugarren eta laugarren urteetan).

Aurreikuspen hori ikusita, gai horri buruzko honako galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Zenbat etxebizitza gehituko zaizkio Nafarroako Funtzari legegintzaldiaren lehen urtean? Zein datatan?

- Funtz horri gehitzea aurreikusten diren etxebizitzak zein herritan, kaletan eta zenbakitan daude?

Iruñean, 2016ko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Berriozarren dagoen trenbide-pasaguneari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Berriozarren dagoen trenbide-pasaguneari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Tokiko prentsak jasotzen duenaren arabera, iragan otsailaren 6an gorabehera bat gertatu zen, hiru ibilgailu harrapatuta gelditu zirenean Berrioz

zarko trenbide-pasaguneko segurtasun-hesien artean. Gune hori da Nafarroan oraindik gelditzen diren lau trenbide-pasaguneetako bat, zeinak hiru izatera igaroko baitira aurten, aurreko gobernuak hartutako ekimenaren ondorioz Izurdiagan egiten ari diren obrak bukatutakoan.

Gertatutakoagatik Berriozarko herrian antza denez berpiztu den kezka eta trenbide-pasagune hori kentze aldera udalak egindako eskariak direla-eta, eskatzen da Osoko Bilkurarako onartu eta izapidetu dadin honako galdera hau, Nafarroako Gobernuak gai horri buruzko azalpenak eman ditzan ahoz, honako hauei dagokienez:

- Zertan dira ADIFek lotune horretan abian jarritako obrak? Nafarroako Gobernuak aski direla uste al du?

- Ba al duzue ADIFekin bidegurutze hori kentzeko inolako lankidetzan –are diru ekarpen bat eginez– jarduteko asmorik?

- Zer plan daukazue Garinoaingo trenbide-pasaguneari dagokionez?

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Espezializazio Adimendunerako Estrategiaren (RIS3) garapenari buruzkoa.

UNAI HUALDE IGLESIAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unai Hualde Iglesias jaunak aurkeztutako galdera, Espezializazio Adimendunerako Estrategiaren (RIS3) garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Unai Hualde Iglesias jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehendakariorde eta Garapen Ekonomikorako kontseilari Aierdi jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi Foru Komunitateko eragile sozioekonomiko ezberdinen aurrean aurkeztu da Nafarroako Espezializazio Adimendunerako Estrategiaren (RIS3) gobernantza-eredu berria. Estrategia hori lurralde baten eraldaketa ekonomikorako europar sistema berri bat da, eta jakintzan eta espezializazioan oinarritutako garapen baterako

irizpideak jorratzen ditu, balio erantsi handiko eta berrikuntzako jardueren bidez.

Halatan, Modernako gobernantza-ereduarekin konparatuz, areagotu egiten da jakintza-sektorearen pisua, hobetu egiten da enpresa traktoreen parte-hartzea eta ahalbidetu egiten da planarekiko konpromisoa erakusten duten eta planaren garapenean inplikatzeko diren pertsonen norbanako gisa parte hartzea.

Hori guztia kontuan hartuta, foru parlamentari honek haxe jakin nahi du:

Zure departamentuak eta Sodena enpresa publikoak hemendik aitzina zer urrats egingen dituzte estrategia hori garatzeko?

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, eremu ez-euskaldunean 2016-2017 ikasturterako D ereduan izandako matrikulazioa dela-eta Hezkuntza Departamentuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, eremu ez-euskaldunean 2016-2017 ikasturterako D ereduan izandako matrikulazioa dela-eta Hezkuntza Departamentuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, martxoaren 3ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

“Publikoa aukeratu: kalitatezko hezkuntza” goiburua duen aurrematrikula-kanpaina bukatu da; horren helburua izan da 2016-2017 ikasturterako matrikulatzea Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatuetan haur eta lehen hezkuntzan sartzen diren ikasleak.

Esan liteke, hortaz, heldu den ikasturtea jada hasi dela. Hemendik aitzina, Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza Departamentuaren zeregin nagusia izanen da Foru Komunitateko plantillak eta baliabideak planifikatzea eta hezkuntza-premia ezberdinetarako aurreikuspenak egitea. Heldu den ikasturterako mugarrietako bat da abenduaren 15eko 18/1986 Legea hein batean aldatzen duen otsailaren 24ko 4/2015 Legea betearaztea, D ereduan eskolatzea eskatzen duten ikasle guztiei eskubide hori bermatze aldera eta euskararen erabilera eta euskaraz ikastea bultzatze aldera.

Hezkuntza Departamentuak zer balorazio egiten du 2016-2017 ikasturterako eremu ez-euskalduneko D eredu matrikulazioa dela-eta?

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Nafarroako Espezializazio Adimendunerako Estrategia garatzeko arrazoiei buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Espezializazio Adimendunerako Estrategia garatzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, heldu den

martxoaren 3ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Orain dela gutxi, Foru Komunitateko zenbait eragile sozioekonomikoren aurrean aurkeztu zen Nafarroako Espezializazio Adimendunerako Estrategiaren (RIS3) gobernantza-eredu berria.

Prentsa-oharraren arabera, "RIS3 delakoak jakintzan eta espezializazioan oinarritutako garapen baterako irizpideak jorratzen ditu, balio erantsi handiko eta berrikuntzako jardueren bidez. Horrek eskualde bateko funtsezko lehentasunak eta beharrak zehaztea eskatzen du, politika eta inbertsioak bideratzeko. Lehentasun horien zehaztea eta gauzatzea "helize laukoitza" aintzat hartuz egin behar da: sektore publikoa, ekoizpen-sektorea, jakintzaren sektorea eta gizarte zibila."

Zeintzuk dira Nafarroako Espezializazio Adimendunerako Estrategia garatzeko arrazoiak?

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, lan arriskuen prebentzioa dela-eta Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, lan arriskuen prebentzioa dela-eta Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, honako galdera hau egiten du, heldu den martxoaren 3ko Osoko Bilkuran, ostegunetz, ahoz erantzun dakion:

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea funtsezko tresna bat izan da, arriskuen kudeaketari dagokionez ekarri zuen aldaketatik aitzina lan-istripuen kopurua murrizteko.

Bilakaera, arlo horretan, positiboa izan zen 2012ra bitarte; izan ere, joera hori nabarmen aldatu zen krisi ekonomikoaren iraupenaren, krisiak

enpresen ekonomian izan dituen ondorioak areagotzearen eta lan-erreformaren ondorioz lege-esparrua errotik aldatzearen ondorioz. Istripukopurua berriro hasi zen igotzen, hamarkada bat baino gehiago iraun zuen beheranzko joera hautsiz, prebentzioaren arloko murrizketen ondorioz neurri handi batean, prebentzioa berriro ere igaro baitzen gastu arbuigarri eta emaitza-kontuak orekatzeko baliagarri izatera.

Krisiak eta lan-erreformak lan-baldintzetan eragindako narriadurak arrisku berriak gehitu dizkie lehendik zeudenei. Prekarietatea, behin-behinekotasuna, azpikontratazioa, txandakako lana eta lan-eritmoak arrisku psikosozial ugari eragiten ari

dira; esate baterako, antsietatea, estresa, laneko indarkeria eta zama mentala, langileak gero eta gehiago pairatzen ari direnak.

Hogei urte bete dira Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea onetsi zenetik, eta, Nafarroan lan-istripuen eraginez 2016ko otsailaren 25erako jada gertatu diren bi heriotzak ikusita, bide luzea dago oraindik egiteko.

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu lan arriskuen prebentzioari dagokionez?

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, datorren ikasturteari begira LOMCEren garapena dela-eta Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, datorren ikasturteari begira LOMCEren garapena dela-eta Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak heldu den martxoaren 3ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du curriculumaren eta antolamenduaren arloetan daukan autonomia baliatzeko asmorik, Nafarroan LOMCEa aplikatzeko orain arte egindako arau-garapenak aldatzeko? Heldu den ikasturterako Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen dauka lege hori garatzeari dagokionez?

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Gobernuaren plantilla organikoan euskara baldintza deneko lanpostuen portzentajea dela-eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak egiten duen irakurketari buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren plantilla organikoan euskara baldintza deneko lanpostuen portzentajea dela-eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak egiten duen irakurketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Solana Arana andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Oposizioko alderdi batzuek egindako adierazpenetan "inposiziotzat" jotzen da Gobernuak euskarari dagokionez egindako edozein ekintza. Jakin ondoren, ordea, euskara Nafarroako Gobernuaren plantillako lanpostuen % 0,6an soilik eskatzen dela —ehuneko hori % 8raino igotzen da irakasleen lanpostuak kontuan hartzen badira, eta % 0,5ean gelditzen da Osasunbidea soilik kontuan hartzen bada—, honako hau jakin nahi dugu:

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak zer irakurketa egiten du datu horiek direla-eta?

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: María Solana Arana

Galdera, Osasun Departamentuko lan-eskaintza publikoari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Osasun Departamentuko lan-eskaintza publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Gobernuak parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Osasun Departamentuko behin-behinekotasun tasa oso handia da; gainera, beharizan berriak sortu dira, osasungintzako profesionalen profil berriak eskatzen dituztenak.

Nafarroako Gobernuak zer asmo du Osasun Departamentuan legegintzaldi honetan lan-eskaintza publikoa egiteari dagokionez? Egin al

da lanpostuen eta profil profesionalen beharrezanez buruzko analisirik, plantillak gaurko egoerara egokitzeko eta etorkizuneko aurreikuspenak egiteko? Baiezkoan, zer neurri hartu nahi ditu horri dagokionez?

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, zenbait artistak eginiko proposamenari buruzkoa, Baztanen herri galdeketa bat egitekoa Aroztegiko UPSaren onespenak sortu duen gatazka konpontze aldera.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, zenbait artistak eginiko proposamenari buruzkoa, Baztanen herri galdeketa bat egitekoa Aroztegiko UPSaren onespenak sortu duen gatazka konpontze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2016ko martxoaren 4an egin beharreko kontroleko Osoko Bilkuran izapidetzeko:

Orain dela astebete, Nafarroako kulturaren arloko pertsona batzuek manifestu bat sinatu eta jendaurreratu zuten, zeinetan eskatzen baitzen "Aroztegia" deitutako Udalez gaindiko Planari buruzko kontsulta bat egin dadin.

Manifestuak honela dio: "gatazka sozial irekieren, publizitate engainagarriaren eta proiektuaren esanahi sozial dudazkoaren aurrean, komenigarritzat jotzen dugu, eta horrela eskatzen, UGPSa

geldiarazi eta Baztan haranean herri galdeketa loteslerako deialdia egitea".

Sinatzaileek beraiek aipatzen dute Aroztegiko UPSa nolako inguruabarrekin onetsi zen, "auzokoen oposizio urte aunitzen ondoren".

Izan ere, turismo, kirol eta, batez ere, etxebizitzaren arloko proiektu hori tramitatzeke lehen saioak huts egin ondoren, Baztango Udal Plana aldatu behar izan zuten, baina justizia auzitegiek deuseztatu egin zuten aldaketa hori. Hala ere, Auzitegi Gorenak toki planeamenduaren aldaketa horren deuseztapena berretsi baino lehen, proiektu espekulatzaile horren sustatzaileek, UPN buru zuten Nafarroako Gobernuarekin argiro elkar hariturik, lortu zuten UPS bat tramitatzea eta behin betiko onestea, joan den urteko foru hauteskunderak izan baino bost egun lehenago, era horretan ekidinez Baztango Udala berezkoak dituen hirigintzako eskumenen jabe izatea, eta helburu horretarako Udalez gaindiko Planaren figura edo instrumentua bidegabeki erabiliz.

Manifestua sinatu dutenen arabera –hain artean daude Xabier Morrás, Mikel Landa edo José Mari Pastor pintoreak, Juan Mari Txoperena edo Gurutze Ziga, edo Montxo Armendariz zinema-zuzendaria, besteak beste–, Aroztegia proiektuak "gatazka sozial irekiko, publizitate engainagarriko eta dudazko esanahi sozialeko" egoera bat ekarri du. Egiten duten kritikaren arabera, UPSa, baliabide juridiko gisa erabili dute, zeinak, eskuinaren eskuetan utzita, auzokoen borondatea ordeztzeko eta aintzat ez hartzeko balio baitu, eta ez haranaren edo auzokoen mesedetan, zeinei eskaintzen baitzaizkie "etekin ekonomiko eztabaigarriak edo etorkizun garbirik gabeko onurak". Aitzitik, "onuradunak eraikuntza sektoreko enpre-

sak dira, jasaten dugun krisitik onuradun edo minik gabe atera direnak” eta “hastapenetik eskala handiko higiezinaren espekulazio negozioa egiten dute”.

“Aroztegiko jauregiaren makro proiektua eremu natural zabaleko esku-hartze izugarria baita eta eragin atzeraezina izanen baitu”, sinatzaileen ustez “desiragarria” litzateke “Nafarroako gaurko Gobernuaren aldaketarako borondatea ikustea”. Eta horregatik diote “deigarri” suertatzen dela “aldaketa sozial eta politikoaren aitzindari izateko lorturiko gobernu batek Aroztegiko UPSaren inposizioa modu akritikoan bere gain hartu izana”. “Inposizio” hori, azaldu dutenez, “inposizio politiko garbia da, hauteskunderen bezperan fede on juridiko diskuti-garriarekin onetsia”. “Aldaketa soziala etor zitekeela sumatzen zen” eta proiektu horren “sustatzaileen babesleak bazterrean gelditzen ahal ziren”.

Sinatzaileek azpimarratzen dutenez, UPSaren onspenaren inguruabarren ondorioz, gaur egun “UPNk utzitako herentzia pozoitua dugu hirigintza

plan hori, hau da, erregimen zaharreko proiektio politiko serioa gaurko koalizio demokratiko eta progresistaren gobernuan”.

Aurreko guztia eta txostenean aipatutakoa ikusirik, parlamentari honek honakoa galdetzen dio Nafarroako Gobernuari:

– Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du artista horien proposamenari buruz, alegia, Baztanen herri galdeketa bat egitea Aroztegiko UPSaren onspenak sortu duen gatazka era demokratikoan konpontze aldera?

– Nafarroako Gobernua prest al legoke aipatu haranean galdeketa demokratiko bat antolatzeke, ahal diren berme guztiekin, zuzenean ezagutzeko herritarrek Aroztegiko UPSaz duten iritzia, eta bereziki UPSan aurreikusitako etxebizitzagarapenari dagokionez?

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroako Gobernua egiten ari den jarduketei buruzkoa, lortze aldera Nafarroara heldu ahal izatea aurreikusita dauden asilo-eskatzzaileak.

MARÍA FÁTIMA ANDREO VÁZQUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Fátima Andreo Vázquez andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernua egiten ari den jarduketei buruzkoa, lortze aldera Nafarroara heldu ahal izatea aurreikusita dauden asilo-eskatzzaileak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fátima Andreo Vázquez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarri-

takoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak 2016ko martxoaren 3ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan larunbatean manifestazio batera joateko aukera izan genuen, zeinean, Europa osoan jende askok egiten zuen une berean, errefuxiatuentzako bide seguruak exijitzen baitziren. Eta erakunde sozialek erakundeei eskatzen zieten ahalegin handiagoa egin dezaten, asiloa eskatzen duten pertsonak etortzea lortze aldera. Gainera, negu betean gaude eta hainbat hilabete daramatzagu gaiari nolabaiteko konponbide bat ematearen zain.

Nafarroako Gobernua zer ari da egiten lortze aldera Nafarroara heldu ahal izatea aurreikusita dauden asilo-eskatzzaileak? Espainiako Gobernuari zenbatean behin eskatzen zaio horri buruzko informazioa? Gobernu zentralak zer eskaini du orain arte?

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Foru parlamentaria: Fátima Andreo Vázquez

Galdera, jakitekoa zenbat aurreinskripzio-eskabide egin diren Ingelesez Ikasteko Programa duten ikastetxeetan edo curriculum-proiektuan ingelesa ikasteari lehentasuna ematen dioten ikastetxeetan.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zenbat aurreinskripzio-eskabide egin diren Ingelesez Ikasteko Programa duten ikastetxeetan edo curriculum-proiektuan ingelesa ikasteari lehentasuna ematen dioten ikastetxeetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilariak erantzun diezaion:

Heldu den ikasturterako aurrematrikula-datuak ezagututa:

Zenbat aurreinskripzio-eskabide egin dira Ingelesez Ikasteko Programa duten ikastetxeetan edo curriculum-proiektuan ingelesa ikasteari lehentasuna ematen dioten ikastetxeetan?

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, irakasleen prestakuntzaren finantzaketari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Alberto Catalán Higuera jaunak irakasleen prestakuntzaren finantzaketari buruz aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera 2015eko

azaroaren 27ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nafarroako iparraldeko zenbait ikastetxetan 12 urtetik 16 urtera bitarteko ikasleei egindako “Nafarroa Mendialdeko 2015eko Inkesta Soziolinguistiko”ari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Nafarroako iparraldeko zenbait ikastetxetan 12 urtetik 16 urtera bitarteko ikasleei egindako “Nafarroa

Mendialdeko 2015eko Inkesta Soziolinguistiko”ari buruzkoa zen, eta 2015eko abenduaren 18ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

